



16. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida
Alarma Egoeraren 16. eguna. 2020ko martxoaren 31a, asteartea.

Igandea hilak 30ko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Atzo aipatzen genuen; *Atano* frontoiaren kanpoaldean **jendea artatu gabe geratzen ari da**. Zenbait kasutan *Atanora* eramaten duten janaria, soberan badago, ematen zaie. Hotzak hartuta daudela, Harrera Saretik mantak, arropa eta oinetakoak eman behar izan dizkiegu. Eta, bitartean, Eneko Goia alkatearen hitzak entzun behar, kale-egoeran dauden pertsona guztiak babestu dituztela esanez.

Informazioa falta bazaie, hementxe kopiazen dugu orain dela buletin pare bat aipatzen genuena: **Bizileku bihurtu daitezkeen baliabideak baditugu**: aterpetxeei dagokienez, Donostian Uliako udal aterpetxea dugu edota Zarautzen Diputazioak kudeatzen duen aterpetxea. Besteak beste, atzoko egunkarian agertu zen bezala, ostatuek Udaletxeari egindako eskaintza datorkigu burura; *“la asociación Hoteles de Gipuzkoa se han puesto en contacto con Alcaldía para colaborar con el Ayuntamiento. Las camas de los alojamientos –hoy cerrados al público por real decreto- estarán disponibles para acoger personas en situación de vulnerabilidad a través del departamento de Acción Social”*. Eta hoteletaz gain, hirian zehar Elizak dituen espazio desberdinetaz ere gogoratu gara: Grosen bertan, Mariaren Bihotza eskola zena, Mirakruz kaleko San Pio X eraikina, Ategorritako bide zaharreko eraikina, etab. Hau guztia dela eta, **larrialdietarako beharrezkoak diren espazioak bilatzeaz gelditu ez daitezten eskatzen diegu instituzioei**.

Udaletxea janaria banatzen ari dela esaten ere entzun genion. Ez dugu zalantzan jartzen. Baina, beti bezala, ez da dena kontatzen, errealitatea desitxuratzen ari dira. Eta alkateak esaten ez duena zera da; badagoela beste hainbat jende, udaletxearen partetik, hari baitagokio, janaria jasotzen ez duena eta ondorioz beste erakunde batzuek geure gain hartu behar dugula gabetasun hau behar duten pertsonak goserik pasa ez dezaten.

Hiritarron Harrera Sareak bakarrik, orain arte, **153 pertsoneri eman diegu janaria**. Beste erakunde batzuek gauza bera egiten ari dira. Orduan? Gustura egiten dugu gainera, **hiritarron betebeharra** dela uste baitugu. Gauza bera sinisten duten boluntarioen solidaritateari esker. Honek, hala ere, ez du udaletxea bere betebeharretatik askatzen, eta ez da onargarria erabat boluntarioa den lan solidario hori guztia gutxieste.

KOMUNIKAZIOA. Atzo prentsa-ohar bat zabaldu zitzaizen komunikabideei eta gutxienez Agentziek, Diario Vasco-k eta irratiek jaso dute. Radio San Sebastián-ek elkarrizketatu gaitu honen inguruan. 15. buletina sarean zabaldu da eta hedabideei helarazi zaie.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionean, 130 pertsonak emandako diru-sarrerak 7.567 € izan dira guztira. **Gandarias** eta **Pandoraren** eguneroko ekarpenak jarraitzen du eta **Ertzaintzak** aurrez prestatutako **janaria ekartzeari berriz ekin dio**.

Bi mugikor eta **sukalde elektriko bat** behar ditugu.



16. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

5. PILULA

Legeak dio. Udal-errola: udalerrri bateko auzokideak agertzen diren administrazio-erregistroa. EAO 71. 24/03/2015, 3.3 artikulua: “infraetxeak (txabolak, karabanak, leizeak, etab. eta baita sabairik gabekoak ere) Udal-errolan agertu ahal eta behar dira baliozko etxebizitza moduan... «alegiatzko bizileku» terminoa erabiliko da udalerrrian bizi den eta dagokien Gizarte Zerbitzuek ezagutzen duten etxebizitarik ez duen pertsonaren kasuan... udal-errola helbidea Gizarte Zerbitzuek adierazten dutena izango da: Zerbitzuaren helbidea bera, Udal Aterpetxearena, pertsona horrek lo egiten duen puntu geografikoarena, etab.” **Argi eta garbi, ezta? Ba udalerrri askoren jarduna ikusita, ez dirudi hain argi dagoenik.**

Udal-brikolajea. Udalerrri askok kale-egoeran dagoena, zuzenean, ez dute erroldatzen. Beste batzuek, euren eskakizunak jartzen dituzte: udalerrrian zenbait hilabete bizitzea gizarte zerbitzuen takilatik pasatuz, lan-plangintza bat edukitzea, helburuak... **Ez da horrelakorik azaltzen legean.** Pentsa genezake, **lege bat badago, udalerrri guztietan berdin bete beharko litzatekeela.** Are eta gehiago legea hain argia denean. Argi eta garbia. Ba badirudi ezetz. Hark zioen moduan: egin itzazue legeak, nik araudiak egingo ditut eta.

Labirinto dokumentala. Badira kontsulatuak (Maroko), erroldatuta egotea eskatzen dutenak, pasaporte emateko. Eta badira enbaxadak (Ginea Konakry) euren naziokoei pasaporterik ematen ez dietenak. Erroldatu ahal izateko kontutan hartu beharreko egoera bereziak dira.

Atzerritarra? Oraindik eta traba gehiago. Beti bezala, nahikoa da atzerritarra izatea traba berriak asmatzeko. Azkena hau, iraupen luzeko bizileku-baimenik ez baduzu, bi urtero udal-errola berri behar duzu, baja emango dizute bestela. Era guztietako paperekin oztopo nahikorik ez baduzu ba hementxe beste bat opari.

Hor doakizu isuna. Hemen ere, “etxean geratzen” ez badira isuna jasotzen duten kale-egoeran dauden pertsonen kasua. 54. 1. artikulua: “Espainian bizi den pertsona oro behartuta dago normalean bizi den udalerrriko udal-errolan inskribatuta egotera... Alkateak udal-errola orriak betetzeari espainiarrek edo atzerritarrek emandako ezezkoak zehatuko ditu”. Hau da, eskatzen duzu, ez dizute ematen edo mila traba jartzen dizkizute eta zigortu zaitzakete.

Edonolako zerbitzuetara iristeko derrigorrezko atea. Nahitaezko oinarrizko betekizuna da edonolako mediku asistentzia, seme-alaben ikasketa, udal-laguntza eta abarretara iritsi ahal izateko. **Eskubide hau ukatzea eskubide-urratze larrienetakoa da.**

Udal-errola eskubidea, orain!

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15 Facebook:
@HiritarronHarreraSarea

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salak